

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Euskarari lotutako bederatzi alorretan elkarlanean aritzeko hitzarmena sinatu dute Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak

*Nafarroako Foru Komunitatearen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean 2009ko uztailean izenpetutako Lankidetzarako Protokolo Nagusiaren barnean kokatzen da agiria*

Jueves, 05 de julio de 2012

Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak [euskararen arloan elkarlanean aritzeko berariazko hitzarmena](#) izenpetu dute gaur Iruñan. Agiriak lankidetzaren teknika finkatzen du hizkuntzaren horren babesari eta garapenera lotutako bederatzi arlotan, bai eta ikerketa, dokumentazio eta ezagutzen nahiz informazioaren trukeari lotutako arloetan ere.



José Iribas eta Blanca Urgell.

Testua José Iribas Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak eta Blanca Urgell Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak izenpetu dute, eta, zehazki, honako esparru hauetan aplikatuko da: euskara helduei irakastea; hizkuntza gaitasunen ebaluazioa eta egiaztatzea; ikerketa eta mapa soziolinguistikoak; euskara-gaztelania eta gaztelania-euskara itzulpenak; itzulpen-memoriak; terminologia; informazioaren eta komunikazioaren teknologiak; euskara nazioartean hedatzeko programak eta euskarazko irakurleak atzerriko unibertsitateetan; eta hizkuntzaren kultur sustapena.

Berariazko hitzarmen hau Nafarroako Foru Komunitatearen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean 2009ko uztailean izenpetutako Lankidetzarako Protokolo Nagusiaren emaitza da, eta esparru-hitzarmen honetan zehaztutako printzipioen arabera, bikoiztasunak saihestea eta gastuak murriztea ditu xede.

Gainera, hizkuntz politikaren arloko lankidetzaren abiatzea da erakundeen arteko elkar errespetutik eta bi erkidegoen errealitate politiko eta soziolinguistiko ezberdinetik, dagozkien legeriek erkidego bakoitzari ematen dizkion eskumenen barnean.

Sinadura ekitaldia Nafarroako Jauregiko Lehendakariaren Aretoan burutu da eta bertan, kontseilariarekin batera, Maximino Gómez Euskarabideako zuzendari kudeatzailea eta Begoña Muruaga Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendaria izan dira.

## Lankidetzarako esparruak

Hitzarmenean jasotako lankidetzarako lehen esparrua **euskara helduei irakaste**ari buruzkoa da. Kapitulu honetan, bi aldeek irakaskuntzako curriculum-a bi erkidegoetan garatzen laguntzea erabaki dute eta material curricularrak landu eta zabaltzea (argi utziz Nafarroak eta EAE bi erakunde politiko, instituzional eta administratibo ezberdinak direla). Langileak prestatzen ere elkarlanean ariko dira (beste administrazioaren prestakuntza-ekintzetan parte hartu ahal izango dute).

Halaber, proben eta sistemen diseinuan elkarlana finkatzen da **hizkuntza gaitasunen mailak ebaluatu eta egiaztatzeko** euskaraz Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuan oinarrituta, bai eta administrazioen emandako tituluak elkarrekin aitortzea ere.

Elkar ulertzeko beste arlo bat **ikerketak eta mapa soziolinguistikoei** buruzkoa da. Hala, administrazio bakoitzak jasotzen dituen datuak euskararen errealitatea islatzeko erabili ahal izango dira erkidego bakoitzean. Azterketa eta ikerketa soziolinguistikoei buruzko informazioa ere trukatu ahal izango da, eta esperientziak partekatu adierazle soziolinguistikoko eta hizkuntza politikako sistemen lantze eta garapenaren inguruan. Ahal den neurrian, azterketak egiteko datak zehaztuko dira (inkesta, euskararen mapa soziolinguistikoa eta beste batzuk). Alor horretan argi eta garbi ezarriko da Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Komunitatea bi erakunde ezberdin direla, administrazio publiko ezberdinekin.

**Euskara-gaztelania eta gaztelania-euskara itzulpenei** dagokienez, bi administrazioak elkarlanean ariko dira Espainiako eta atzerriko legeak, baita Europar Batasuneko itun eta zuzentarauak ere, gaztelaniatik euskarara eta euskaratik gaztelaniara itzultzeko. Gainera, itzultzaile eta zinpeko itzultzaile eta interpreteentzako egiaztapenei elkarrekiko ezagutza ematea erraztuko da. Bi administrazioetako itzulpen zerbitzuek egindako itzulpenek balioa izango dute bi erkidegoetan.

Gainera, bi aldeek konpromisoa hartu dute **itzulpen memorien banku publikoa** sortu eta mantentzeko, bi administrazioetako itzultzaileek beren lanean erabil dezaten.

Halaber, Nafarroak eta EAEak **terminologian** ere bateratu dute, terminoak onartzea, glosarioak trukatzeko eta haiek hedatzea.

**Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiei** dagokienez, bi aldeek konpromisoa hartu dute Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien esparruan dauden baliabideen inbentarioa egiteko, horretan interesa duten erabiltzaileek errazago eskura ditzaten eta baliabide horiek euskaraz sortu edo egokitzeko ahaleginetan bikoiztasunik egon ez dadin.

Bestalde, bi administrazioak elkarlanean ariko dira euskara **nazioartean hedatzeko** programak garatzen eta euskarazko irakurleak atzerriko unibertsitateetan garatzen. Hala, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, Etxepare Euskal Institutuaren eta Nafarroako Gobernuoko Hezkuntza Departamentuaren Euskarabidearen arteko elkarlana sustatuko du. Erakunde horiek eskumena dute euskara eta euskal kultura nazioartean hedatzeko eta, hartara, bi erakunde horietako edozeinek helburu horiekin prestatzen dituen programetan parte hartzea gonbida dezake bestea.

Azkenik, eta **kultur sustapenari** dagokionez, Euskarabideak nahiz Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak batak bestea gonbidatu ahal izango du kanpainak eta materialak, ekitaldiak... egiten edo parte hartzen lagun dezan.

Administrazio bakoitzak programak egin edo garatuko ditu bakoitzaren ahalmen ekonomikoaren arabera. Hitzarmenaren jarraipena egiteko, alde biko batzorde mistoa sortuko da. Foruaren Hobekuntzak dioenarekin bat, hitzarmena indarrean sartuko da Gorteetan jakinarazi eta handik hogeit hamar egunera.